



## STEE-EILAS, Hezkuntza Sailburuak egin duen EPE iragarkiaren aurrean.

Atzo, urriaren 15ean, Cristina Uriarte Sailburuak plazaratu zuen ikasturte honetan Hezkuntza Publikoan Emplegu Eskaintza egiteko asmoa. Ez zuen zehaztu plazen kopurua eta banaketa. Adierazpena Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean sartu baino lehen egin zuen.

Bi egun lehenago Konrado Mugertza, Langileriaren kudeaketako zuzendariak, Lakuan izandako sektoreko Planifikazio Batzordean gai honetaz galdetuta, ezer ez zekitela esan zigun bildutako sindikatuoi, eta zerbait egotekotan zuzenean komunikatuko zigitela. Berriro ere, prentsaren bitartez enteratu gara,

Honen aurrean, STEE-EILAS-ek salatu nahi du Hezkuntza Sailaren jarrera, langileen ordezkarietara honelako erabakiak izkutatzen eta propaganda helburuekin erabiltzen.

Egia da Hezkuntza Publikoko ordezkoen lan baldintzak txarrera joan direlako azken urteotan. Hobetzeko, hainbat neurri proposatu dizkiogu administrazioari:

- Ordezko egonkorren sistema berreskuratzea. Sistema honek, antzintasunean batez ere oinarrituta, ordezkoei bermatzen die lana.
- Ikastetxeetan ordezkapenak lehenengo egunetik betetzea. Ordezkoei lana emateaz gain, gainontzeko langileei lan zama ez gehitzeko eta ikasleen eskubideak errespetatzeko.
- STEE-EILASek maiz eskatu duen moduan, ordezkoen zerrendak urtero ireki, zerrendak agortzeari eta ikastetxeak ordezko barik egoteari itxaron ordezkoei.
- Bigarren Hezkuntzako hainbat ikastetxe publikotan Hamaika Esku programaren bidez fundazio pribatu baten langileak sartu ordezkoei, ikastetxe horiei (eta gainontzekoei) giza baliabideak gehitzea, murriztu ordezkoei.
- Ordezkoen zerrendak errespetatzea, eta ez ematea lehentasuna sartzeko bide arrotza (gozaindegiko baimena) erabili dutenei, hots, erlijioiko irakasleei.

Oposaketak ez dira ordezkoen lana hobetzeko modu bakarra, eta plazen kopurua, perfilak eta kidegoen eta espezialitateen banaketa egokiak ez badira, langile gutxiri egingo diete mesede, baina gehenei, eta Hezkuntza Sistemari kalte besterik ez.

Hori bai, oso ondo letorkioke Hezkuntza Sailari hauteskunde propaganda moduan. Azken finean, susmoa dugu horretan datzala iragarkia.